# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 1747

AGINDUA, 1994ko apirilaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua eskatu eta erregistratzeko bidea arautzen duena.

1992ko urriaren 30eko Aginduak (azaroaren 11ko EAO) honako gai hauek arautu zituen: batetik, Hezkuntza-Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututako irakaskuntza orokorren ebaluazio-txostenen oinarrizko osagaiak eta, bestetik, 1993ko apirilaren 2ko Aginduak (azaroaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) aldatutako ikasle-mugikortasuna bermatzeko beharrezko diren eta ebaluazio-bidetik datozen baldintza formalak. Urriaren 30eko agindu horrek, bada, finkatu egiten ditu Estatu osorako diren ebaluazio-agiriak; agiri horiek ikasleek egindako ikasketak biltzen dituzte eta aukera ematen dute hezkuntza-sistemako maila edo etapa batetik bestera mugitzeko, bai eta ikastetxe batetik bestera joateko ere. Aipatutako Aginduak agiri ofizialaren maila eman zion Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuari (bai Lehen Hezkuntzakoari, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoari). Bertan esaten denez, honako inguruabar hauek jaso beharko dira: ikastetxe-aldaketak, eskolaratze-urteak, igarotzeei buruzko erabakiak, kalifikazioak eta, hala badagokio, Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko proposamena. Aginduaren hamalaugarren puntuko lehenengo idazatian zehazten denez, hezkuntza-arloko betebeteko aginpideak dituzten hezkuntza-administrazioek argitaratu beharko dute liburu hori, eta administrazio horiek izango dira agiri ofizial hori eskatu eta erregistratzeko bidea ezarriko dutenak.

Aginduaren azken xedapenetarik hirugarrenak baimena ematen die autonomia-elkarteetako erakunde aginpidedunei agindu hori egokiro ezartzeko behar diren jarraibideak eman ditzaten.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua argitaratu duenez, eta Eusko Jaurlaritzak abuztuaren 11n emandako 237/1992 Dekretuak arautu zituen Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak 1992-93 ikasturtean hasi zirenez, bidezkoa da Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua eskatu, bete eta erregistratzeko bidea arautzea.

Ondorioz, legediak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ematen dizkion aginpideak erabiliz,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

### 1747

ORDEN de 29 de abril de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, sobre el proceso de solicitud y registro del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica.

La Orden de 30 de octubre de 1992 (BOE de 11 de noviembre), por la que se establecen los elementos básicos de los informes de evaluación de las Enseñanzas de Régimen General reguladas por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, así como los requisitos formales derivados del proceso de evaluación que son precisos para garantizar la movilidad de los alumnos, modificada por la Orden de 2 de abril de 1993 («Boletín Oficial del Estado» del 15), fija los documentos de evaluación, comunes a todo el Estado, que reflejan los aprendizajes realizados por los alumnos y permiten su movilidad de uno a otro nivel o etapa del sistema educativo y entre diferentes Centros escolares. La citada Orden regula el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica (Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria) como el documento oficial que garantiza la movilidad de los alumnos, recogiendo la información relativa a cambios de Centro, años de escolaridad, decisiones sobre la promoción, calificaciones y propuesta, cuando proceda, de expedición del título de graduado en Educación Secundaria. En su punto decimocuarto, apartado 1, determina que el referido Libro será editado por las Administraciones Educativas con plenas competencias en materia de educación, que establecerán el procedimiento de solicitud y registro del citado documento.

En su disposición final tercera, la citada Orden, autoriza a los organismos competentes de las Comunidades Autónomas a dictar las instrucciones que sean precisas para su correcta aplicación.

Editado el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, y habiéndose iniciado las enseñanzas correspondientes a la Educación Primaria, reguladas en el Decreto 237/1992, de 11 de agosto, del Gobierno Vasco, en el curso 1992-93, procede regular el proceso de solicitud, cumplimentación y registro del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica.

Por todo ello, en virtud de las competencias que la legislación confiere al Consejero de Educación, Universidades e Investigación

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Ezarpen-eremua

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko lurralde-eremuko ikastetxe publiko nahiz pribatu guztietan ezarri beharko da agindu hau, baldin eta Hezkuntza-Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezarritako Oinarrizko Irakaskuntzari (Lehen Hezkuntzari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari) dagozkion irakaskuntzak ematen badituzte.

*2. atala.–* Eskolaketa-Liburuaren ezaugarriak

1.– Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua (Lehen Hezkuntzakoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa) oinarrizko agiri ofizial mota bat da, hain zuzen ere, ikasleak ikasketetan izandako kalifikazioak eta bere ikasketetako bilakaerari buruzko erabakiak biltzen dituena eta egindako ikasketak egiaztatzeko balio duena. Bestalde, ikasleak maila edo etapa bereko ikastetxe batetik bestera joateko edo Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzeko aukera ematen du liburuak.

2.– Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburu honek zehatz-mehatz jasoko ditu ikaslearen ikasbideari buruzko argibideak: ikaslearen ebaluazio-agirietan azaldutakoak eta ikastetxean gordetzen den ikasketa-espedientean bildutakoak.

3.– Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua ikasten ari den ikastetxean egongo da jasota eta Derrigorrezko Irakaskuntza amaitu arte ez zaio ikasleari emango.

4.– Kasu bakoitzean fede eman behar duten pertsonen izenpeek azaldu beharko dute Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan. Izenpeon azpian izenpetzailearen izena eta abizenak jasoko dira.

5.– Gerta litezkeen datu okerren zuzenketak egiaztatzeko, idazkariak eginbidea gauzatu eta izenpetu beharko du. Zuzenketok, ahal bada, orrialde berean azaldu beharko dute edo, bestela, geratzen diren hutsuneetan edo oharrak egiteko tokietan.

*3. atala.–* Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua eskatu eta erregistratzea

1.– Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariek, urriaren bigarren hamabostaldiaren barruan, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua behar duten ikasleen zerrendako bi ale aurkeztu beharko dizkiote dagokien barrutiko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoari. Horretarako, II. eraskineko eredua erabiliko da.

2.– Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuak eskatzen diren urte horretan 6 urte betetzen dituzten umeen izen-abizenak jasoko dira zerrendan, eta alfabetoaren arabera antolatuko.

3.– Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, halaber, aurreko zenbakian azaldutako epe berean, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuak eskatu beharko dituzte Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein ziklo edo mailatara, hainbat arrazoi direla eta, sartu eta liburua ez duten ikasleentzat. Salbuespenen

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Ambito de aplicación.

La presente Orden será de aplicación en todos los Centros, tanto públicos como privados, situados en el ámbito territorial de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que impartan las enseñanzas correspondientes a la Enseñanza Básica (Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria) establecida en la Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

*Artículo 2.–* Características del Libro de Escolaridad

1.– El Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica (Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria) es el documento oficial que refleja las calificaciones y las decisiones relativas al progreso académico del alumno. Tiene valor acreditativo de los estudios realizados y posibilita la movilidad de los alumnos entre los Centros de un mismo nivel o etapa educativa y entre los niveles de educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria.

2.– El Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica reflejará fielmente las informaciones relativas al proceso de aprendizaje de los alumnos recogidas en las actas de evaluación y en el expediente académico del alumno que se conservan en el Centro.

3.– La custodia del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica corresponde al Centro educativo en que el alumno se encuentra matriculado, y se entregará a éste al término de la Enseñanza Obligatoria.

4.– El Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica llevará las firmas fehacientes de las personas que corresponda en cada caso. Debajo de cada firma constará el nombre y apellidos del firmante.

5.– En caso de error en la cumplimentación de datos, las subsanaciones deberán acreditarse mediante diligencia con la firma del Secretario si es posible en la misma página, o bien en los espacios en blanco que resten, o en las páginas reservadas para observaciones.

*Artículo 3.–* Solicitud y registro del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica

1.– Los directores de los Centros de Educación Primaria presentarán a la Inspección Técnica de Educación de la Circunscripción en que se hallen enclavados, en la segunda quincena del mes de octubre, una relación por duplicado de los alumnos para los que se solicita el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica. Se utilizará para ello el modelo del Anexo II.

2.– La relación incluirá, por orden alfabético, los alumnos y alumnas que cumplan 6 años de edad en el año natural en que se solicitan los Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica.

3.– Asimismo, tanto los Centros de Educación Primaria como los Centros de Educación Secundaria, solicitarán, en el mismo plazo que el señalado en el artículo anterior, Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica, para aquellos alumnos que, por diversas causas, se incorporen a la Educación Primaria, o a la Educación Secundaria Obligatoria en cualquiera de sus ciclos o

bat medio, bigarren eskolaketa-liburu bat eskatzen bada, bigarren hori emateko arrazoiak zein izan diren azaldu beharko da liburuaren eraskin batean.

4.– Eskaera egiteko, II. eraskina erabiliko da. Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, hirugarren atalean ezarri den eskabide berean, bigarren liburua eskatzen duten ikasleen zerrenda erantsiko dute. Zerrenda horrek, hurrenkera-zenbakiaren arabera antolatuta, zerrenda arrunteko azken ikaslearen atzean joan beharko du, bien tartean marra horizontal bat dela.

5.– Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein ziklo edo mailatara, hainbat arrazoi direla eta, sartu baina liburua ez duten ikasleei dagozkien Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuak eskuratu ondoren, ikastetxeetako idazkariek, zuzendarien laguntzaz, behar bezala bete beharko dituzte liburuok. Horrekin batera, eskolaketa-liburu berria irekitzeko arrazoiak jaso beharko dira 4. orrialdeko Oharrak deritzon atalean.

6.– Bigarren eskolaketa-liburuak irekitzen direnean, hala jaso beharko da 4. orrialdeko Oharrak deritzon atalean, horretarako, IV. eraskinean adierazten den eginbidea erabiliz. Bestalde, ikaslearen ikasketa-espedientean azaltzen diren datuak ere idatzi beharko dira eskolaketa-liburuan.

7.– Bigarren eskolaketa-liburuaren eskaria Bigarren Hezkuntzako ikastetxeren batean gertatzen bada, bertako idazkariak egiaztagiri bat eskatu beharko dio ikasleak ikasi duen Lehen Hezkuntzako azken ikastetxeari. Egiaztagiri horretan honako datu hauek adieraziko dira: eskola-urteak, Lehen Hezkuntzako zikloetan lorturiko ebaluazio-emaitzak eta igarotze-erabakiak. Egiaztagiri hori eskuratu ondoren, eskolaketa-liburuan jaso beharko da Lehen Hezkuntzari dagozkion orrialdeetan.

8.– Hezkuntzako ikuskari nagusiak, ikastetxe guztietako eskariak bildutakoan, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari emango dio dauden beharren berri, eta horretarako I. eraskina erabiliko da.

9.– Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak, jarraian, eskatutako aleak igorriko dizkio Ikuskaritzako lurralde-barruti bakoitzari; I. eraskinaren arabera jasoko dira igorritako aleen saila eta zenbakiak.

10.– Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak erregistratuko ditu Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuak. Ikasle bakoitzak bere Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua izango du. Ikasle bakoitzari emango zaion Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuaren erregistro-zenbakiak lau zati izango ditu:

– Lehena lurralde historikoari dagokio: 48 Bizkairako, 20 Gipuzkoarako eta 01 Arabarako.

– Bigarrena, aldiz, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko lurralde-barrutiari dagokio. Hona hemen lurralde bakoitzeko barrutien zenbakiak: Bizkaiari dagokionez,

cursos, y carezcan del mismo. Cuando, por causas excepcionales la solicitud consista en un duplicado se hará constar tal circunstancia y se consignará, en escrito anexo a la misma, la naturaleza de las circunstancias que la motivan.

4.– Para esta solicitud se utilizará, igualmente, el modelo del Anexo II. Los Centros de Educación Primaria incluirán en la misma solicitud establecida en el artículo tercero, a continuación del último alumno relacionado, separados por una raya horizontal y siguiendo el número de orden, la relación de estos alumnos en orden alfabético.

5.– Una vez recibidos en los Centros los Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica correspondientes a los alumnos que por diversas causas se incorporen a la Educación Primaria o a la Educación Secundaria Obligatoria en cualquiera de sus ciclos o cursos careciendo del mismo, serán convenientemente diligenciados por los secretarios de los Centros, bajo el visado del director, haciendo constar en la página 4, correspondiente a Observaciones, las circunstancias por las cuales se abre dicho Libro de Escolaridad con esa fecha.

6.– En el caso de los duplicados del Libro de Escolaridad, esta circunstancia se hará constar, mediante la diligencia que figura en el Anexo IV, en la página 4, correspondiente a Observaciones, y se trasladarán al Libro de Escolaridad los datos que constan en el expediente académico del alumno.

7.– Si las solicitudes de duplicado se producen en un Centro de Educación Secundaria, el Secretario de dicho Centro, a su vez, solicitará del último Centro de Educación Primaria en el que hubiera estado escolarizado el alumno una certificación en la que consten los años de escolaridad, los resultados de evaluación obtenidos en los diferentes ciclos de Educación Primaria, así como las decisiones de promoción, trasladando el contenido de dicha certificación a las páginas correspondientes de Educación Primaria en el Libro de Escolaridad.

8.– El Inspector General de Educación, recogidas las solicitudes de Libro de Escolaridad de Enseñanzas Básicas de todos los Centros, informará de las necesidades a la Dirección de Renovación Pedagógica, utilizando para ello el Anexo I.

9.– La Dirección de Renovación Pedagógica remitirá a cada Circunscripción Territorial de la Inspección el número de ejemplares solicitado, dejando constancia de la serie y números de los remitidos, según el Anexo I.

10.– Los Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica serán registrados por la Inspección Técnica de Educación. Cada Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica será atribuído a un alumno. El número de registro del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica que se adjudicará a cada alumno estará compuesto por cuatro apartados:

– El primero corresponderá al Territorio Histórico. Estos números de código son los siguientes: 48 para Bizkaia, 20 para Gipuzkoa y 01 para Alava.

– El segundo, a la Circunscripción Territorial de la Inspección Técnica de Educación. Los números de las circunscripciones correspondientes a cada Territorio son

1 Durangorako, 2 Santurtzirako, 3 Bilborako, 4 Basaurirako, 5 Barakaldorako eta 6 Getxorako; Gipuzkoari dagokionez, 1 Irunerako, 2 Donostiarako, 3 Eibarrerako, 4 Tolosarako eta 5 Lasarterako; Arabari dagokionez, 1 Gasteizerako eta 2 Gasteizerako.

– Hirugarrenak ikaslearen hurrenkera-zenbakia adierazten du; Ikuskaritza Teknikoak ikastetxeari ematen dizkion zenbakien artean egon beharko du hurrenkerarenak.

– Azken zatian, ordea, ikasturtea adieraziko da, urte bakoitzaren azken zenbaki biak erabiliz.

11.– Ikuskaritza Teknikoak, hirugarren atalak ezartzen duen zerrendarekin bat, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuaren erregistro-zenbakiak esleituko dizkie ikastetxeei. Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburu bat izango da ikasle bakoitzeko; lurraldemailako erregistro-zenbaki bana ere egokituko zaie honela zehaztuta: lehenak 1 zenbakia izango du, bigarrenak 2 eta horrela ikasturte horretan erregistratu den azken eskolaketa-liburura heldu arte. Hurrengo ikasturtean berriz ere 1 zenbakiarekin hasiko da.

12.– Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak, erregistratu ondoren, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuak emango dizkie ikastetxeei. Liburuok ematearekin batera, hirugarren atalak aipatzen dituen zerrendetako bat, zerbitzu horiek behar bezala betea, ikastetxeetara igorriko da artxiboan gordetzeko. Beste zerrenda, ostera, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuan gordeko da, eta horrela ikastetxe guztietako zerrendek kasuan kasuko lurralde-burutzako Eskolaketa-Liburuen Erregistroa osatuko dute.

13.– Urtero, abenduan, lurralde bakoitzeko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak erregistratu diren eta banatu gabe geratu diren Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuen kopuruaren zergatia jakinaraziko dio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari, horretarako III. eraskina erabiliz.

*4. atala.–* Eskolaketa-Liburua betetzeko jarraibideak

1.– Ikaslea eskolaratzen den Lehen Hezkuntzako lehenengo ikastetxeak ireki beharko du Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua eta eskatzen diren datu guztiak bete beharko ditu.

2.– Lehen Hezkuntza bukatutakoan, ikastetxea uztearen datuak beteko dira. Ondoren, ikasleak Bigarren Hezkuntza ikasteko izango duen ikastetxera igorriko da Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua, beti ere, ikastetxe hartzaile horren eskariz. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, aldiz, ikaslearen izen-ematearen atala beteko du Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan.

3.– Urtero, ikasturtea bukatzen denean, ikasleak izena eman duen ikastetxeko zuzendariak interesdunari dagokion eskolaratze-aldia izenpetuko du.

4.– Ikaslea hurrengo ziklora edo, hala badagokio, hurrengo mailara igarotzeko erabakia hartu denean, horren berri eman beharko da Oinarrizko Irakaskuntza-

las siguientes: Bizkaia: n.º 1 (Durango), n.º 2 (Santurtzi), n.º 3 (Bilbao), n.º 4 (Basauri), n.º 5 (Barakaldo), n.º 6 (Getxo). Gipuzkoa: n.º 1 (Irún), n. 2 (Donostia-San Sebastián), n. 3 (Eibar), n. 4 (Tolosa), n.º 5 (Lasarte). Alava: n.º 1 (Vitoria-Gasteiz), n.º 2 (Vitoria-Gasteiz).

– El tercero, al número de orden correspondiente al alumno, de entre los asignados por la Inspección Técnica al Centro.

– En el último apartado se indicará el curso escolar, expresado mediante las dos últimas cifras de cada año.

11.– La Inspección Técnica asignará a cada Centro los números de registro del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica que le correspondan, uno por cada alumno, de acuerdo con la relación recibida del Centro en cumplimiento del artículo tercero. Cada Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica será atribuído a un alumno y se le asignará un número de registro con carácter territorial, del siguiente modo: En el apartado correspondiente al número de orden se iniciará con el n.º 1, continuando correlativamente hasta el número que corresponda al último Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica registrado en cada curso escolar, volviendo a comenzar por el n.º 1 al curso siguiente.

12.– La Inspección Técnica de Educación entregará los Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica, una vez registrados, a los respectivos Centros; estas entregas irán acompañadas por una de las relaciones a que se hace referencia en el artículo tercero,diligenciada por dichos servicios para su archivo en los Centros. La otra relación será archivada en el Servicio de Inspección Técnica de Educación, constituyendo el Registro de Libros de Escolaridad de la Jefatura Territorial correspondiente.

13 – A lo largo del mes de diciembre de cada año, la Inspección Técnica de Educación de cada Territorio presentará la justificación ante la Dirección de Renovación Pedagógica del número de Libros de Escolaridad de la Enseñanza Básica que han sido registrados y el remanente de los mismos, según modelo del Anexo III.

*Artículo 4.–* Instrucciones de cumplimentación.

1.– El Centro de Educación Primaria en el que el alumno inicie su escolaridad será el encargado de la apertura del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica y procederá a cumplimentar los datos que corresponda.

2.– Al término de la Educación Primaria se cumplimentará la baja del alumno en el Centro y se trasladará el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica al Centro de Secundaria en el que el alumno continúe su escolaridad, a petición de dicho Centro. El Centro de Secundaria cumplimentará en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica la inscripción del alumno.

3.– Al finalizar cada año académico, el director del Centro en el que el alumno se encuentra matriculado firmará la escolaridad correspondiente al mismo.

4.– Una vez haya sido adoptada la decisión de promoción del alumno al ciclo siguiente o, en su caso, al curso, se consignará esta circunstancia en el Libro de

ko Eskolaketa-Liburuan, eta orduan, ikasleak lorturiko ebaluazio-emaitzak idatziko dira bertan. Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko proposatu badute ikaslea edo, hala badagokio, etapa bukatu badu, soilik orduan jaso beharko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ebaluazio-emaitzak.

5.– Ikasleren batek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein ziklotako edo aurreko mailako arlo edo jakintzagaietan kalifikazio negatiboa eskuratzen badu, horiek gainditzen dituenean ikastetxeko idazkariak hala egiaztatu beharko du, hain zuzen ere, gainditu duen arloa edo jakintzagaia, lortutako kalifikazioa eta gainditze-eguna adieraziz.

6.– Lehen Hezkuntzan, ebaluazio-emaitzak honela zehaztuko dira: A.E. (aurrerapen egokia), H.B. (hobetu beharra). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, honako hauek erabiliko dira: bikain, oso ongi, ongi, nahikoa eta gutxiegi.

7.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatutakoan, derrigorrezko eskolaratze-aldiaren amaiera egiaztatuko da Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan eta, hala badagokio, Derrigorrezko Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko diren etapako helburuak bete dituenentz ere.

8.– Ebaluazioaren egiaztapena deritzon atala ere bete beharko da. Horretarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko arlo edo jakintzagai guztietan eta bigarren zikloko maila guztietan ikasleak lorturiko azken kalifikazioa jaso beharko da. Ikastetxeko idazkariak emango du egiaztapena, beti ere, zuzendariak oneritzita.

9.– Dibertsifikazio-programak egin dituzten ikasleen egiaztapenak Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuko 29. orrialdetik 31.era bitartean agertu beharko du. Ikastetxeko idazkariak emango du egiaztapena, beti ere, zuzendariak oneritzita eta ezarriko den moduan. Arlo eta jakintzagaietan lorturiko kalifikazioak eta egindako ikasturteak azalduko dira bertan.

10.– Curriculumaren egokitzapen garrantzitsuak dituzten ikasleen kasuan, egokitzapenok Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan jasoko dira: Lehen Hezkuntza denean 12. orrialdetik 14.era bitartean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza denean, berriz, 29. orrialdetik 31.era bitartean. Kasu batean zein bestean, CEG (curriculumaren egokitzapen garrantzitsua) siglak erabiliko dira. Ikastetxeko idazkariak emango du egiaztapena, beti ere, zuzendariak oneritzita.

11.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa bukatutakoan, ikasleari emango zaio Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua. Emate horren berri liburuan eta ikasketa-espedientean jaso beharko da. Ikasleak, bestalde, liburua hartu izanaren agiria sinatu beharko du, ikastetxean hala jasota gera dadin.

*5. atala.*– Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua ikastetxez aldatzea

Escolaridad de la Enseñanza Básica reflejando, en ese momento, los resultados de la evaluación obtenidos por el alumno. Los resultados de la evaluación correspondientes al cuarto curso de Educación Secundaria Obligatoria solo se consignarán cuando el alumno haya sido propuesto para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria o, en su caso, al finalizar su escolaridad en la etapa.

5.– En Educación Secundaria Obligatoria, la superación, en su caso, de las áreas o materias del ciclo o curso anterior, en las que el alumno hubiera obtenido calificación negativa, será certificada por el secretario, haciendo constar el nombre del área o materia superada, la calificación obtenida y la fecha de superación.

6.– Los resultados de la evaluación en Educación Primaria se expresarán en los siguientes términos: P.A. (progresa adecuadamente), N.M. (necesita mejorar). En Educación Secundaria Obligatoria se utilizará la escala de calificaciones: sobresaliente, notable, bien, suficiente e insuficiente.

7.– Al término de la Educación Secundaria Obligatoria se certificará en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica, la finalización de la escolarización obligatoria del alumno y, en su caso, la consecución de los objetivos de la etapa conducentes a la obtención del Título de Graduado en Educación Secundaria.

8.– Igualmente se cumplimentará la acreditación de la evaluación, haciendo constar siempre la última calificación obtenida por el alumno en cada área o materia del primer ciclo y de cada uno de los cursos del segundo ciclo de Educación Secundaria Obligatoria. Esta acreditación será extendida por el secretario del Centro con el visto bueno del director.

9.– La acreditación para aquellos alumnos que hayan seguido programas de diversificación se recogerá en las páginas 29 a 31 del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica. Esta acreditación será extendida por el secretario del Centro con el visto bueno del director, al término del programa y en los términos que se establezcan . En ella constarán los años cursados y las calificaciones obtenidas en las distintas áreas y materias.

10.– En el caso de alumnos con adaptaciones curriculares significativas, éstas se reflejarán en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica con las siglas «A.C.S.» (adaptación curricular significativa), en las páginas 12-14 del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica para la Enseñanza Primaria, y en las páginas 29-31 del mismo para la Educación Secundaria Obligatoria. Esta acreditación será extendida por el secretario del Centro con el visto bueno del director.

11.– Al término de la etapa de Educación Secundaria Obligatoria se hará entrega del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica al alumno, haciendo constar esta circunstancia en el Libro y reflejándolo en su expediente académico. De la entrega del Libro quedará, asimismo, constancia en el Centro mediante la firma del recibí del alumno.

*Artículo 5.*– Traslado del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica

1.– Ikaslea ikastetxez aldatzen bada, sorburuko ikastetxeak, xedekoaren eskariz, behar bezala betetako Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua igorriko dio xedekoari. Xede-ikastetxeak ikaslearen izen-ematea agertarazi beharko du Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan. Xede-ikastetxeak, halaber, ikasketa-espediente berria irekiko du, eta bertan jaso Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuan azaldutako datuak. Eskolaketa-Liburuan ikastetxez aldatzeko eginbideen toki-kopurua nahikoa ez bada, ikastetxeek 12. orrialdetik 14.era bitartean burutuko dituzte Lehen Hezkuntzako eginbide berriak eta 19. orrialdean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkionak.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bukatutakoan ikastetxez aldatzen bada, sorburu-ikastetxeak, ikastetxea uztearen berri emateaz gain, ikasleak hartutako aukerako jakintzagaiak eta lortutako kalifikazioak agertaraziko ditu Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuko 16. orrialdean.

3.– Ikastetxez aldatzen denean, ikasleak V. eraskinaren raberako egiaztagiri bat eskatu beharko dio sorburu-ikastetxeari; ikasturte horretan egin dituen edo egiten ari den ikasketak jaso beharko dira bertan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ziklo bat edo hirugarren maila bukatutakoan aldatzen bada ikastetxez, igarotze-erabakia ere jaso beharko da. Horrela, izena emanda geratuko da harik eta ikastetxe hartzaileak bidezko dokumentazio osoa eskuratzen duen arte.

4.– Ikastetxez aldatzeko gainerako kasuetan, men egin beharko zaie 1992ko urriaren 30eko Aginduaren hamahirugarren eta hamazortzigarren puntuei (azaroaren 11ko BOE, Estatuko Aldizkari Ofiziala).

*6. atala.*– Hezkuntza-sistemaren antolamendu berria ezarri bitartean jarraitu beharreko arauak.

1.– Hezkuntza-sistema berriko Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein ziklo edo mailatan hasten diren ikasleentzat, derrigorrezkoa izango da 1992ko urriaren 30eko Aginduaren arabera zehaztutako Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua erabiltzea.

2.– 1992/93 eta 1993/94 ikasturteetan hezkuntza-sistema berriko Lehen Hezkuntzan hasi diren ikasleei dagokienez, honela jokatuko da:

– Erabaki hau argitaratu eta hamabost eguneko epean, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariek Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburua eskatuko dute Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetako edozein mailatan hasi diren ikasleentzat. Agindu honen hirugarren atalean zehazten den moduan eskatu beharko dira liburuok.

– Agindu honen zazpigarren atalak ezartzen duenez, Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolaketa-Liburuen beharra arrazoituko da, eta hain zuzen ere, 1994/95 ikasturtea hasi aurretik egin ere. Horretarako III. eraskineko inprimakia bete beharko da.

3.– Hurrengo ikasturteetan, hezkuntza-sistemaren

1.– Cuando un alumno se traslade de Centro, el de origen remitirá al de destino, y a petición de éste, el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica del alumno, debidamente cumplimentado. El Centro de destino procederá a reflejar en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica la inscripción del alumno y abrirá un nuevo expediente académico, trasladando al mismo los datos consignados en el Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica. En caso de que las diligencias de traslado contenidas en el Libro de Escolaridad resulten insuficientes, los Centros extenderán nuevas diligencias en las páginas 12 a 14, para la Educación Primaria, y en la página 19 para la Educación Secundaria Obligatoria.

2.– Cuando el traslado se produzca finalizado el primer curso del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria, el Centro de origen, además de la baja en ese Centro, hará constar en la página 16 del Libro de Escolaridad de la Enseñanza Básica la materia o materias optativas cursadas por el alumno y la calificación obtenida en cada una de ellas.

3.– En el momento de traslado, el alumno deberá solicitar del Centro de origen una certificación, según el modelo del Anexo V, en la que consten los estudios que realiza o ha realizado en ese año académico. Si el traslado se produce una vez finalizado un ciclo, o el tercer curso de Educación Secundaria Obligatoria, se hará constar también la decisión de promoción, de forma que permita su adecuada inscripción en el Centro de destino en tanto se reciba la documentación pertinente.

